

KARLOS DEL OLMO

Gabriel Arestiren hil izanaren urteurrenean eraturiko gorazarreetan idazle eta kultur aktibistaren hainbat alderdi gizarteratzen ahalegindu dira, hainbat saio eta ekimenetan. Dena dela, egun ere, behar bezala ezagutu eta merezi duen neurrian balioetsi barik dirau Arestiren tasun batek: teatroarenak, berak zioenez. Elkarritzeta batean adierazi zuenez, idazle gisa eginiko lehen obra antzezlan bat izan zen, hala, letra bataiotzat literatura dramatikoaren zuen Gabrielelek: 'Mugaldeko herrian eginikako tobera' (1961eko Toribio Altzaga saria, urte hartantxe 'Egan'en argitaratua). Arestiren noraiezko bidaide bihurtu zen ondorio (alditxarreko) bat ere ekarri zion sariak: kritika «erreakzionarioak» jasotzea, funtsean, gerraurreko uste ideologikoetatik abiatuta, haren iritziz.

Nori berea ematearren, aho batean aldarri egin behar dugu euskarazko antzerkigintza astindu gura izan zuela Arestik, noiz eta Francoren diktadurak euskal kulturgintza ia ito zuen urte haietan, teatrogintza zabal bat medio: antzerkia itzuli zuen, antzerkia idatzi, antzerkiaz teorizatu, antzezlan itzuliak leitu, antzerkia taularatzen parte hartu, are 'Beste mundukoak'... antzezlanean bere burua aipatu, haren sei antzezlanetako bik agertokiko argia ikusi zuten (besterik ez), eta, azken baina ez mendreen, Aresti bera geroko antzerki lan batzuetako pertsonaia izan da... Hortaz, teatrogintza integraleko ekintzaile bat zela onartu beharra dagoke.

Euskal agertokietan nahiz literatura dramatikoan berritzeko gogo sutua agertu zuen: antzinako euskal antzerkiaren erroak zein teatro modernoaren ekarria uztartu beharra aldeztu zuen.

Ahozketasunetik hurbilen dagoen generoa eta estiloetako bat denez gero, idazle baten 'neurria' edo 'trebezia tekniko' aztertu eta neurtzeko tresna ezinago egokia da literatura dramatikoak. Alde horretatik, euskal ikerketek ere zorra dute Arestiren literatura dramatikoarekin.

Gabrielek XX. mendearen bigarren erdialdean paraturiko ekarri teorikoak kriseilu bide erakusle gertatzen dira, hara hor 'Nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean' (1961) -Toribio Altzaga saria irabazi zuen urtekoa- eta 'Euskal teatro berri baten beharra: euskal komedia' (1964); haietan jasotako gogoeta batzuk gaur ere egunerokotasun handikoak izan eta eginkizun behar-beharrezko ger-

tatzeraino. Euskal teatroa eguneratu beharra euskara bera gaurkoto eta modernotasunerako gaitzeko premiarekin lotzen zuen.


'Tobera'z gain, beste bost lan idatzi zituen oso tarte motzean: 'Etxe aberatseko seme galdua' eta 'Maria Madalenaren seme santua' (1962, 1963an 'Egan'en argitaratua'); 'Eta gure heriotzeko orduan' (1963, 1964an

Euskal agertokietan nahiz literatura dramatikoan berritzeko gogo sutua agertu zuen

'Egan'en publikatua'; 'Oilarganeko etxola batean' (1963, 1965ean 'Egan'en nobela moduan -'Mundu munduan'- plazaratua eta, 1986an, antzezlan modura, Susa argitaletxean); 'Beste mundukoak eta zoro bat' (1964, 1969an Lur argitaletxeko 'Euskal elerti 69' bilduman argitaratua emana. Jarrai taldeak 1965ean antzeztua, taldekoekin

Arestiren antzerkiari ere berea da zuzenbidea

Lana. Bere heriotzaren 50. urteurrenean, noraiezkoa da haren antzerki-balioa goraiatzea



Gabriel Aresti gaztetan. Goian, emaztearekin Arriagako eskaileretan. FAMILIA-ARTXIBOA

batera biltzearen ondorioz idatzi zen eta: oso jokabide modernoak); 'Justizia txistulari' (1965, 1967an 'Egan'en argitara aterea. Xabier Letek berridazketa halako bat egin zion, eta Lete bera partaide zuen Oiartzungo Lar-taundarrak taldeak antzeppen xume bat eratu zion, 1965ean).

Antzerki urte horiek emankorrrak izan ziren poesian ere: 'Zuzenbide Debeakua' (1961), 'Mailu batekin: Biola batekin' (1962), 'Euskal Harriaren lehen moldaketa', 'Harri eta Herri' (1964) eta 'Euskal Harria eta beste 30 poema' (1965), lau aldiz onduta 'Euskal Harria eta beste 119 poema' izendatura kaleratu arte (1967).

Halere, agertokiko argiak betiko itzali balira legez, ez zuen beste antzezlanik argitaratu edo idatzi, ez eta eleberririk ere. Etsiak hartuta? Gauza guztietara heldu ezina, euskalgintzan zein bizitzan? Hara hor fokuek argiztatu beharreko misterio bat, nahiz eta Arestik 1973an plazaraturiko Lau teatro arestiar liburuko azal hegal batean zenbait hedabidek zentsura egiten ziotela salatu. Teatroan ere? Ezin jakin!

Patri Urkizuk idatzi legez, Arestik antzerkian jorratutako bide hori -etiketen balio erlatiboa gorabehera- «herri antzerki iraultzaileztat jo dezakegu»: ezin uka 1960. urtetik aurrera euskal kulturgintzan eragile handia izan zela Gabriel.

Bestalde, Jerardo Elortzaren iritziekin bat, ezin ahaztekoa dugu esaera zahar, aspaldiko kanta, bertsolaritza eta abarrei buruzko erreferentzia literario samarrak aurki daitezkeela Gabrielen teatroan, bai eta hark itzuli zituen Europako eta Espainiako dramaturgoen ai-puak edo omenalditxoak ere. Jokatu zizkieten lanei gagozkiela, ez dakigu zenbateraino ohar-tzen ziren garai hartako euskal ikusleak jolas literario horiez. Eta gutxi irakurtzen eta aztertzen direnez gero ere...

Euskal Antzerki Konpainia ('Komedia', Arestik esana) Nazionalik XXI. mendean ere ez egotearen ondorioz, erraz asko gerta daiteke haren literatura dramatikoak hautsa batzen eta agertoki gainean jartzeke luzaro irautea.

Gabrielen berbak gomutara, «Mundu guztia teatro baten barnean sarturik dago, eta kandile-jen gainetik publikoa ikusten du».

